

zuzendariari

(0034) 943 300 222



zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Tenkor eta maltzurak

Xanti Begiristain • Iruñea

Nafarroan ditugun agintari gorenak mando beltza baino tenkorragoak dira. Badakit guztiz alferrikakoa dela beraiei arrazoia ematea, edo, behintzat, horrela demostratzen digute behin eta berrito. Horregatik, idazki hau normalxeagoa den jendearentzat idatzi dut. Nafarroan ditugun Gobernuburuak oso bitxiak, maltzurak eta izorratzaile galantak dira; demokraziatik kanpo uzteko modukoak, hau da, erabat eredu garriak agintekeria praktikatzan den esparruetarako. Adibide motz batzuk baino ez ditut jarriko. Bai, izan ere gure buruzagiak oso buru azkarrak dira. Dagoeneko, Auzitegi Gorenak hiru aldiz esan die epaien bidez Itoizko urtegia ezin dela bete 510 metrotik go-

ra, baina berdin da, Miguel Sanz abarkaduna lehen bezain lasai omen dago —Erreserba Naturalen Legea Aitatxo Joxe Mari Aznarren laguntzatxoarekin aldatuko dugu eta kito—. Epaia beraiei aurkakoak direnean, bost axola zaizkie entzutegiak, epaitegiak eta baita auzitegiak ere, eta, hala eta guztiz ere, oso demokratikoak izaten jarraitzen omen dute.

Baskuentzearen Legearekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen funtzionamendua normalizatzeko behar den dekretu edo dena delakoarekin, beste horrenbeste, nafar demokratiko gehien borondatearen aurka legeak, arauak eta dekretuak aldatu kolpe baldar batez eta akabo! Ongi ikusten da Aznarren seme kuttuna den corellarrak ederki ikasia duela lezioa: —Herri Batasuneko Mahai Nazionalako asko kilika-

tzen badizkirate biboteak, espetxera eta ospa!, eta Batasunekoek gogotik ukitzen badizkirate sudurreko iletxoak, doministiku trebe batez Legea aldatuko diet eta utikan!—. Honelaxe gabiltza, bada, herritar xumeok, jaun-andreak, aurrera ezin eginik aida!, iso!, arre!, uoo!, esti!, so!, arrantza eta marruen artean!

Atutxa eta faxismoa


Josean Elgezabal • Bilbo

Joan den astean, EAEko legebiltzarrean, Atutxak Otegi salatu zuen, PPkoak faxistak zirela adierazteagatik. Gutun honen helburua ez da nor den faxista eta nor ez azaltzea. Bakoitzak jakingo du Batasunaren ilegalizazio nahia faxista ala demokratikoa den. Nik argi badut

ere. Esan behar dut ez natorrela bat Batasunaren hainbat ekintza eta adierazpenekin. Besteak beste, gaur egun, Ezker Batuko kidea naiz. Baina argi baino argiago dut Otegiarena, PPkoei faxista deitzea, adierazpen politiko bat izan zela. Eta, adierazpen politiko moduan, politikoki kritikatu ahal da, baina ezin da isilarazi, demokrazia batean behintzat. Atutxak legebiltzarrean egin zuen bezala.

Baten batek esan zuen bezala, «demokraziaren gaixotasunak demokrazia gehiagorekin sendatzen dira». Pertsona libreak herri libreetan. Giza eskubide guztiak denontzat: bizitzeko eskubidea, autodeterminazioa, enplegu duina... eta adierazpen askatasuna ere bai, Atutxa jauna. Ezin ahaztu. Eskubideak ezin dira negoziatu. Orain isiltzen bagara, gero, agian, beranduegi izango da.

montxo



galdeiozu... ?



JAKOBA ERREKONDO

Paisajista

Zeraingo lorategietan barazkiak jarri dituzte. Zergatik?

Joseba Barandiaran (Bilbo)

Lorategien diseinua estetikan soilik oinarritzen dela pentsatzea oso motza da. Urteak dira paisajista batzuk Euskal Herrian bertako paisaiaren, hau da, bertako kulturaren garapenean oinarrituta lorategiak egiten hasi ginela. Gure baserri atarietara begiratzea nahikoa da ondo bertakoak diren lorategien ezaugarriez jabetzeko. Erabilpen zehatza duten landareak daude etxe bueltan: lotzeko gaiak egiteko drazenak, kalamuak, etab.; sendabelar ugari malbak, arkakaratsa, etab.; jatekoak marrubiak, mugurdiak, etab.; lanabesetarako kanaberak, zumeak, etab.; mitikoak eta errito ekintzetarako elorri zuria, erramua, etab. Lorategi horietan gure kultura oinarri duen estetika duzu; gustukoa al duzu?

Maiatzaren 14tik aurrera **Joxe Leon Otaño • AEK-ko koordinatzailea** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta



Asisko Urmeneta

Gaur mende baten ondotik

Oscar Wilde akusatuen aulkira eraman du Britainiar Inperioaren infamiak. Carson fiskalak: Zera idatzi du berorrek *Dorian Gray*-ren aitzinsolasean: «Ez da liburu moralik edo immoralik. Liburu ongi idatzirik, eta gaizki idatzirik baizik». Aipua berorren ikuspuntua islatzen du, sire?

Wildek: Arterean gaineko ene ikuspuntua islatzen du, bai.

Carson: Beraz, ikuspuntu perbertituak eskeintzen dituen liburu ongidatzi bat, liburu ona izan liteke?

W-k: Ezin artelanak ez du ikuspunturik eskeintzen. Ikuspuntuak jendeek daukate.

C-k: Eleberri perbertitu bat, baina, liburu ona izan daiteke?

W-k: Ez baitakit zeri erizten dion berorrek eleberri perbertitua.

C-k: Honenbertzez *Dorian Gray* proposatzen dut adibidetako.

W-k: Hori ez lezake pentsa enoranteek eta

ezikasiek baizik. Ezinago enulak dira filisteoen iritziak arteari buruz.

C-k: Eta ezikasiek irakur baleza, *Dorian Gray* gisa hartako eleberria iduri lekiok?

W-k: Ez dagokit berteen enorantziarik. Futitzen naiz ezikasien iritziez.

C-k: Eleberri honen pasarte batean, *Dorian Gray*-k liburu jakin bat jaso du; xuxena dea berorrek aipatu liburu?

W-k: Ez da ongisko idatzirik, baina inspiratu egin nau.

C-k: Eta ez dauka delako liburu horrek joera jakin bat?

W-k: Ez dut nik bertze artista baten lanaz erantzunen. Ezegoki ezegiz, arrunkeria litzateke.

Gill fiskalak: Ezagutzen du berorrek *The Camaleon* izeneko izparringia?

W-k: Bai, eta ez dut lanik hartuko haren kontrako arbuiorik plazaratzeko; ene duintasunak galera izaten dit Oxfordeko ixturianta eli baten produktuarekin lot nadin.